

UNTXI TXIKIA

13. KAPITULUA:
AZTARNA EZEZAGUNA .

14. KAPITULUA: DADOA..

13. KAPITULUA:
AZTARNAREN EZEZAGUNA .

14. KAPITULUA: DADOA..

AURKIBIDEA:

Gida didaktikoaren azalpena 2 or.

5. Kapituluak:

- Helburuak 3 or.
- Ekintzak 4 or.
- Gidoi literarioa blokeka denborak zehaztuz 5 or.

6. Kapituluak:

- Helburuak 9 or.
- Ekintzak 10 or.
- Gidoi literarioa blokeka denborak zehaztuz 12 or.

Bibliografia 16 or.
Egileak 17 or.

GIDA DIDAKTIKOAREN AZALPENA.

BIDEOKASETE HAU HAURREN HEZKUNTZAKO BIGARREN ZIKLOKO 2. ETA 3. IKASMAILETAKO HAURREI ZUZENDUA DA.

Gure lanaren ardatz nagusia da material lagungarria eskaintzea komunikazioaren eremuari dagozkion helburuak lantzeko. Hauek dira bereziki landu nahi ditugun helburuak:

e) Inguru hurbila jakin-minezko eta ardurazko jarreraz begietsiz eta aztertuz, inguru hori osatzen duten elementuen ezaugarri eta propietate esanguratsuenak identifikatzea, eta haien artean sortzen diren erlazioetariko batzuei antzematen laguntzea.

f) Haurren inguruko zenbait adierazpen kulturazko ezagutuz, eta haiekiko errespetua, interesa eta parte-hartzezko jarrerak garatuz, inguru hurbileko beste adierazpen kulturazko batzuekiko interesa eta errespetua lantzen hastea.

g) Haurrek bizi, ezagutu edo irudikatu duten errealitatearen zenbait alderdi antzeztea eta gogoratzea, eta jolasek nahiz antzezteko eta adierazteko beste forma batzuek eskaintzen dituzten aukera sinbolikoen bitartez aditzera ematea.

h) Hitzezko mintzaira komunikazioko egoera ohikoetara egokituz erabiltzea: besteek diotena ulertzeko eta ulertua izateko; ideiak, sentimenduak, esperientziak eta desioak adierazteko; esanguren eraikuntzan aurrera egiteko; norberaren jokabidea arautzeko eta besteenean eragina izateko.

i) Haurrek, eskura dituzten baliabideen bitartez, adierazteko ahalmenak aberastea eta zabaltzea; haien adinari dagozkion adierazpen artistikoak ezagutzen eta haietaz jabetzen laguntzea.

13. KAPITULUA: AZTARNA EZEZAGUNA.

HELBURUAK:

- Gozatzea.
- Ahozko testuak ulertzea.
- Ahozko hizkuntza erabiltzea ideiak azaltzeko.
- Irudikapen ez-konbentzionala erabiltzea adierazpide gisa.
- Bost zenbakia: kardinala bereiztea. Bost zenbakia deskonposatzea eta batuketarekin esperimintatzea.
- Bost zenbakia: ordinala bereiztea.

JARRERAZKOAK:

- Ahozko mintzaira tresnatzat hartzea eta balioestea norberaren ideiak eta interesak adierazteko zein besteenak ezagutzeko.
- Kulturako tradizioaren testuei dagokienez, arreta eta interesa izatea.
- Nork bere eta besteen ekoizpen plastikoak atsegin izatea.
- Jolas-dinamikak berak sortzen dituen antzezpenetan parte hartzeko ekimena, ziurtasuna eta konfiantza izatea.

KONTZEPTUAK:

- Lau zenbakia: kardinala, deskonposizioa eta batuketa.
- Hotsaren iraupena: beltza, zuria eta biribila.
- Ahozko mintzaira, komunikatzeko tresnatzat hartua.
- Kulturako tradizioaren ahozko testuak.
- Kontrola: jarduera, mugimendua, arnasketa, atsedena.

PROZEDURAZKOAK:

- Ipuinen eta esperientzien gaineko deskribapenak eta kontaktak ulertzea, hizkuntzaz kanpoko seinaleak adituz.
- Ipuinen eta esperientzien gaineko deskribapenak eta kontaktak egitea, hizkuntzaz kanpoko seinaleak erabiliz.
- Kulturako tradizioako abesti batzuk ezagutzea, ulertzea, eta intonazio eta doinu egokiz kantatzea.
- Bost zenbakia: kardinala bereiztea. Bost zenbakia deskonposatzea eta batuketarekin esperimentatzea.
- Bost zenbakia: ordinala bereiztea.
- Hizkuntza idatzi ez-konbentzionala hainbat asmorekin erabiltzea: Plastikazko lanez baliatzea gertakariak, bizipenak, fantasiak eta desioak adierazteko.
- Mugimenduaren aukerak erabiltzea besteekin elkarri eragiteko bide gisa.
- Egoerak identifikatzerakoan eta imitatzeke jokoetan parte hartzea.

EKINTZAK

HIGIMENA ETA HIZKUNTZA

- Eduki guztietan, lehendabizi, gorputzarekin bizipenak izaten edo gogoratzen hasiko gara.
- “Azeri harrapatzailean” jolastu: (bosteko taldeak eginez) Bost haur besteen bila joango dira. Harrapatuak harrapatzera joango dira, baina laukoteak eginez.
 - Bat “Azeria” izango da, eta haurrak harrapatu egin behar ditu. Bost harrapatzen dituenean, “azeria” izateari utziko dio. Hurrengo azeria bosgarren harrapatua izango da.

HIZKUNTZA

- Kapitulua ulertzea: umeei kontrazi, irakasleak lagunduta.
- ”Txirkanda honek ...” kanta abestu.
- Egoeraren transposizioa: imitazioa egin. Lehenago, pertsonaiak banatu: zer behar den, non kokatuko diren:
 - EGUZKIA.- (Haurrei.) Gaur nire beroaz elurra urtuko dut. Horrela, animaliak eta haurrak jolastera etorriko dira. Ondo begiratuko dut, ea ikusten ditudan.
 - EGUZKIA.- (Hontzari.) Egun on! Dagoeneko lotan egon beharko zenuke.
 - HONTZA.- Erdi lotan nago, baina nola dena hain polita baitago, pena ematen dit joatea.
 - EGUZKIA.- Bada, ez egin lo!
 - HONTZA.- Baina, gero, gauean, lo geratuko naiz.
 - EGUZKIA.- Gau batengatik, ez du axolarik!
 - HONTZA.- Baina nire adiskideak ipuina entzutera etorriko dira, beti bezala.
 - EGUZKIA.- Horrexegatik. Niri ez didazu inoiz kontatzen, baina Ilargiari, Izarrari eta Hodeiari bai!

HONTZA.- Hori ezin da konpondu. Ni gauez egoten naiz esna, eta zu beste leku batean egoten zara! Ez joatea duzu!

EGUZKIA.- Hori ezinezkoa da. Ni biraka ibiltzen naiz, eta ezin naiz gelditu. Gustura ibiltzen naiz, baina zure ipuinak ezin ditut entzun!

HONTZA.- Bada, horrela bada, nik ezin dut konpondu!

EGUZKIA.- (Negarrez.) Ez joan lotara, eta konta iezadazu ipuin bat! A, a, a, a!

HONTZA.- Ez hasi negarrez, hori ez da nire errua. Zuk orain argia eman behar duzu; nik, berriz, lo egin behar dut.

Nork bere zeregina du. (Eguzkia laztanduz.) Ea, ez zaitez triste jar! Ez egin negar!

EGUZKIA.- (Negarrez.) Baina nik ipuin bat nahi dut!

HONTZA.- Kontatuko dizu besteren batek.

EGUZKIA.- (Intziri eginez.) Nork?

HONTZA.- (Aharrausika.) Ez dakit, baina, beharbada ... Haizeak!

EGUZKIA.- Gaur ez dabil Haizerik. Dena lasai-lasai dago.

HONTZA.- (Aharrausika.) Hodeia etorriko da.

EGUZKIA.- Ez dut uste, gaur oskarbi dago. Zuk kontatu beharko didazu.

EGUZKIA.- Prest nago entzuteko. Hasi azkar, biraka ibili behar dut eta.

HONTZA.- Utz iezadazu lo egiten, arren!

MATEMATIKA ETA HIZKUNTZA

·Kartetan jolastu: batetik bosterako kartak hartu, eta “karta-gerran” jolastu.

·Kodifikatzea: eskatu ezen marrazkien bidez konta dezatela Txikiren lagunei gertatutakoa.

·Haur bati bost bola txiki eman, eta eskatu bi eskuetan ezkutatzeko.

Beste haurrek asmatu behar dute esku batean zenbat dituen, beste eskukoak ikustean. Gauza bera egin daiteke lau bolatxoak lau edalontzitan banatuz. Haurrek asmatu behar dute zenbat bola dauden besteetan, edalontzi batekoa, bitakoa edo hirutakoa ikustean.

·Ahate-jokoaren antzeko jokoetan jolastu, baina dadoaren gehienezko puntuak bost izanik.

PLASTIKA ETA HIZKUNTZA:

·Eskuaren estanzazioak egin, eta, ondoren, esan zer izan daitekeen, eta eraldatu.

· Kontakizunaren haria, blokeka eta denborak zehaztuz

13. KAPITULUA: AZTARNA EZEZAGUNA.

EGUZKIA.- (Haurrei.) Gaur nire beroaz elurra urtuko dut. Horrela, animaliak eta haurrak jolastera etorriko dira. Ondo begiratuko dut, ea ikusten ditudan.

EGUZKIA.- (Hontzari.) Egun on! Dagoeneko lotan egon beharko zenuke.

HONTZA.- Erdi lotan nago, baina nola dena hain polita baitago, pena ematen dit joatea.

00:03

EGUZKIA.- Bada, ez egin lo!

HONTZA.- Baina, gero, gauean, lo geratuko naiz.

EGUZKIA.- Gau batengatik, ez du axolarik!

HONTZA.- Baina nire adiskideak ipuina entzutera etorriko dira, beti bezala.

EGUZKIA.- Horrexegatik. Niri ez didazu inoiz kontatzen, baina Ilargiari, Izarrari eta Hodeiari bai!

HONTZA.- Hori ezin da konpondu. Ni gauez egoten naiz esna, eta zu beste leku batean egoten zara! Ez joatea duzu!

EGUZKIA.- Hori ezinezkoa da. Ni biraka ibiltzen naiz, eta ezin naiz gelditu. Gustura ibiltzen naiz, baina zure ipuinak ezin ditut entzun!

HONTZA.- Bada, horrela bada, nik ezin dut konpondu!

EGUZKIA.- (Negarrez.) Ez joan lotara, eta konta iezadazu ipuin bat! A, a, a, a, a!

HONTZA.- Ez hasi negarrez, hori ez da nire errua. Zuk orain argia eman behar duzu; nik, berriz, lo egin behar dut.

Nork bere zeregina du. (Eguzkia laztanduz.) Ea, ez zaitez triste jar! Ez egin negar!

EGUZKIA.- (Negarrez.) Baina nik ipuin bat nahi dut!

HONTZA.- Kontatuko dizu besteren batek.

EGUZKIA.- (Intziri eginez.) Nork?

HONTZA.- (Aharrausika.) Ez dakit, baina, beharbada... Haizeak!

EGUZKIA.- Gaur ez dabil Haizerik. Dena lasai dago.

HONTZA.- (Aharrausika.) Hodeia etorriko da.

EGUZKIA.- Ez dut uste, gaur oskarbi dago. Zuk kontatu beharko didazu.

EGUZKIA.- Prest nago entzuteko. Hasi azkar, biraka ibili behar dut eta.

HONTZA.- Utz iezadazu lo egiten, arren!

Zu erne egon, eta berehala agertuko dira Txiki, Beltxiki, Kattalin eta Azeria. Ez dakizu zenbat gauza egiten dituzten.

EGUZKIA.- Txiki eta haren adiskideak ezagutzen ditut! Non dira?

HONTZA.- Erne egon, eta laster agertuko dira. **00:06**

EGUZKIA.- Haurrak joan dira, eta Txikiren adiskideak ez dira etorri. Esnatzen denean, esango diot nik, bai, Hontza horri!

KARATULA.- Bazen behin untxi txiki bat. Amatekin eta aitatekin bizi zen. Haren etxea lur azpian zegoen, eta, han, haien ohe lastozkoak.

KATTALIN.- Ezetz harrapatu!

TXIKI eta BELTXIKI.- Fiuuuu! Azkar!

KATTALIN.- Bai eguraldi polita gaurkoa! Zerua oskarbi dago, eta ez du batere hotzik egiten.

TXIKI.- Elurretan jolasteko aukera ederra. Ufala!

EGUZKIA.- (Hontzaren zurrunga.) Bazen garaia! Etorri dira, eta zein pozik dauden! Inbidia ematen didate. Baina nik ezin dut elurretan ibili, urtu egingo bailitzateke.

BELTXIKI.- Elurretan irristatuko gara?

KATTALIN.- Hemen elurra bigunegi dago. Beste leku egokiago bat topatu behar dugu.

EGUZKIA.- Bai adiskide onak direla! Nik ere abestuko dut.

EGUZKIA.- (Abesten saiatuz.)

HIRURAK.- Ufalaaaaa! **00:09**

KATTALIN.- Orain, okerrena: igo egin behar!

BELTXIKI.- Zergatik ez dugu goian soka bat ipintzen?

TXIKI.- Hori bai ideia ona!

TXIKI.- Zuek irrist egin, eta, gero, sokaren laguntzaz igo; nik eutsiko diot.

BELTXIKI eta KATTALIN.- Oooooooooo!

TXIKI.- (Soka botaz.) Heldu sokari, eta igo zaitezte.

TXIKI.- Kontuuuz! Ezin zaituztet biok batera igo! Oso astunak zarete! Biok batera heltzen badiozue, zuek igo beharrean, ni jaitsiko naiz!

KATTALIN.- (Beltzikiri.) Igo zu lehenbizi, eta gero ni.

TXIKI.- Eup, eup!

BELTXIKI.- Orain zuk igo behar duzu! Tori soka!

BELTXIKI.- Eup, eup!

KATTALIN.- (Beltzikiri.) Zure ideia oso ona izan da. Orain, igotzea errazago da.

TXIKI.- Baina batek goian geratu behar du, eta ezin du irrist egin. Soka nonbait lotu beharko genuke, eta, horrela, hirurok batera irristatzen ahalko ginateke.

KATTALIN.- Hemen ez dago zuhaitzik. Non lotuko dugu soka?

TXIKI.- Makila bat sartuko dugu lurlean, eta soka makilan lotuko dugu.

KATTALIN.- Kito! Orain hirurok batera irrist egin dezakegu.

KATTALIN.- Ni jarriko naiz aurrean.

TXIKI.- Ni erdian, eta zu, Beltxiki, azkena. Ados?

HIRURAK.- Ufala!

KATTALIN.- Orain, gora igo behar dugu.

HIRURAK.- Eup, eup, eup!

BELTXIKI.- Oooo! Kontuz, makila mugitzen hasi da!

HIRURAK.- Aaaaaa! Uiiiiiiiiiii!

HIRURAK.- (Barrezka.) Orain bai irristatu garela!

BELTXIKI.- Nik uste nuen inoiz ez ginela geldituko.

KATTALIN.- Abiada handiz irristatu gara, fiuuuu!

TXIKI.- Zartada ederra hartu dut nik! Begira ezazue zer aurkitu dudan! (Lehenago aipatutako eskularrua erakutsiz.)

BELTXIKI.- Ajjjj! Ez da jateko!

TXIKI.- Zer demontre ote da? Ez dut sekula honelakorik ikusi.

TXIKI.- Nire ustez, janzteko balio du, baina ez dakit non janzteko den.

KATTALIN.- Hau ez da untxientzakoa; agian, oilarraren txanoa izango da.

BELTXIKI.- Bat, bi, hiru, lau eta bost. Bost punta ditu... (Pentsakor.) Zein animaliak du horrelakorik gorputzean?

TXIKI.- Zorroa izango da, baina, zer gordetzeko?

KATTALIN.- Begira ezazue! Hemen dago animalia horren aztarna!

HIRURAK.- Hori kaka da! (Denak urrundu, eta, gero, berriro hurbiltzen dira; usaindu, eta...)

00:13

BELTXIKI.- Ez du usain txarrik (usainka), kaka ez da. Zer ote da?

TXIKI.- Badakit! Hau etxea da! Hemen bost bare bizi dira, edo bost zizare lodi. Beharbada, Eguzkia dagoenez gero, irten egin dira, baina itzuliko dira. Hemen geratzen bagara, ikusiko ditugu.

KATTALIN.- Ez dut uste hori horrela denik. Bareak lur azpian bizi dira.

BELTXIKI.- Nik ere ez dut uste bareen etxea denik. Ez du aurpegi txarrik, baina nik ez dut horrelakorik sekula ikusi.

Baina, norbaitena baldin bada, etorriko da berriro.

TXIKI.- Geratzen bagara, ikusiko dugu... (Pentsatzen.) edo ditugu.

KATTALIN.- Bost hanka ditu... edo bost buru... edo bost isats... edo bost belarri?

TXIKI.- Edo... lau hanka eta isats bat, ezen hau motzagoa da, eta banatuago dago, urrunago, alegia.

BELTXIKI.- (Hatz txikia seinalatuz.) Hiru hanka dituela esango nuke nik. Hau motzagoa da, baina ezin da hala izan. Hankek luzera berekoak izan behar dute.

KATTALIN.- Nik ez dut uste animalia batena denik. Hau Izar bati eroriko zitzaion. Hontzari galdetuko diogu, haien adiskidea baita.

BELTXIKI eta TXIKI.- Egia! Hau zerutik eroriko zen, eta Izarrak ezin du hartu. Hontzari eramango diogu.

00:15

KATTALIN.- Hontza lotan dago.

TXIKI.- Iratzartu egingo dugu. Gainera, askotan, begi bat irekia izaten du.

HIRURAK.- Ene! Zer da hori?

KATTALIN.- (Beldurtuta.) Hona dator! Ezkuta gaitezen!

KATTALIN.- Hemen gelditu da. Zerbait bilatzen ari da!

BELTXIKI.- Begira, begira erpe batean horrelako bat dauka; bestean ez, ordea!
TXIKI.- Harena da, eman egin beharko diogu.
KATTALIN.- Nork emango dio? Gure adiskidea ote da?
BELTXIKI.- Ez du aurpegi txarrik, baina nik ez dut horrelakorik sekula ikusi.
KATTALIN.- Konturatu zarete zein erpe arraroak dituen? Bost punta ditu!
TXIKI.- Eta mugitu egiten ditu!
BELTXIKI.- Begira hontzari kontatuko diogu, eta hark esango digu zer animalia den.
KATTALIN.- Gauza hau eman behar diogu; bota egingo diot.
KATTALIN.- Hontzari kontatzen diogunean, ez digu sinetsiko.
KATTALINEN AMA.- (Etxean, kezkatuak, aitari.) Berandu da, eta Kattalin ez da oraindik itzuli.
AITA.- Haren bila joango gara. Bihar ez da mendira joango, berandu etortzeagatik.
AMA.- Kattalin! Etxera joateko ordua da, ez zara konturatu?
AITA.- Etxera garaiz joan behar duzu; bestela, ez zara irtengo.
KATTALIN.- Bai, ama, baina ez dakizu zer gertatu den. Hontzarekin hitz egin behar dut pixka batean, eta banao.
AMA.- Utzi Hontza bakean, oraindik lotan dago eta. Goazen etxera!
TXIKI eta BELTXIKI.- Baina Hontzari gauza bat kontatu nahi diogu!
KATTALIN.- Bai, ama, Hontzari kontatu, eta bagoaz, e?
KATTALINEN AITA.- Kattalin! Esandakoa egin, goazen etxera, goazen etxera!
BELTXIKI.- Bihar goizean goiz jaikiko gara, eta Hontza esnatua harrapatuko dugu.

00:18

TXIKI.- Eguzkia irten baino lehenago izan beharko du, bestela lo egongo da eta.
KATTALINEN AMA.- Eta zer kontatu behar diozue Hontzari?
KATTALIN.- Animalia ezezagun bat ikusi dugula.
KATTALINEN AMA.- Bai? Nolakoa?
KATTALIN.- Bi belarri motz zituen, ez zuen buztanik...
KATTALINEN AITA.- Ilea ala lumak zituen?
KATTALIN.- Ilea buruan, baina gorputzean ez.
BELTXIKI.- Eta haren erpeak oso arraroak ziren, bost punta zituzten.
BELTXIKI.- Zuk gutxi ipini dituzu! Ez zen horrelakoa!
TXIKI.- Eta zuk asko! Ez zen horrelakoa!
AITA.- Ondo dago, kopuru bera ipini duzue. Zenbatu eta frogatu, lasai.
AMA.(offean)- Horrelako erpea zuen?
HIRURAK.- Bat, bi, hiru, lau, bost! Ezagutzen al duzue?
AITA eta AMA.- (Irribarrez.) Bai, gizakia da.
KATTALINEN AMA.- Nolakoa zen? Handia ala txikia?
KATTALIN.- Gu baino handiagoa. Gutxi gorabehera, honaino ailegaten zen.
KATTALINEN AMA.- Haur bat izango zen, eta hurrek ez dute erperik, eskuak baizik. Mugitzen diren gauza horiek hatzak dira.
KATTALIN.- Eskuak?
KATTALINEN AMA.- Bai, eskuak, eta esku bakoitzean bost hatz dituzte.
HONTZA.- A! Zein ongi egin dudan lo!
ZUHAITZA.- Zurrunga eta guzti egin duzu! Buruko mina dut!
HONTZA.- Primeran nago! Zein ongi egin dudan lo!
Fiiuuu!
IZARRA.- Gabon denoi! Hemen gara!
ILARGIA.- Gabon, Zuhaitza! Gabon, Hontza!
ZUHAITZA.- Zuek ere zarataka? Hau eguna!

00:20

IZARRA.- (Hontzari.) Ipuina entzutera etorri gara. Ni prest nago!

ILARGIA.- Ni ere bai!

HONTZA.- Bada, gaur ezin dizuet kontatu. Egun osoan lo seko egon naiz.

ZUHAITZA.- Egia da. Ez dakizue nola egiten duen zurrunga. (Hontzaren zurrunga imitatzen du.)

IZARRA.- (Zuhaitzari.) Eta zuk konta ahal zeniezaguke?

ZUHAITZA.- Ez, ezta pentsatu ere! Orain nik lo egingo dut, eta... zaratarik ez egin, bestela...

HONTZA.- Gaur Eguzkiak ikusi du Txikik eta adiskideek zer egin duten.

IZARRA.- Joango gara Eguzkiarengana?

ILARGIA.- Bai!

14. KAPITULUA: DADOA.

HELBURUAK:

- Gozatzea.
- Ahozko testuak ulertzea.
- Ahozko hizkuntza erabiltzea ideiak azaltzeko.
- Irudikapen ez-konbentzionala erabiltzea adierazpide gisa.
- Sei zenbakia: kardinala bereiztea. Sei zenbakia deskonposatzea eta batuketarekin esperimentatzea.
- Sei zenbakia: ordinala bereiztea.
- Hotsaren iruapena erkatzen eta neurtzen hastea.

JARRERAZKOAK:

- Ahozko mintzaira tresnatzat hartzea eta balioestea norberaren ideiak eta interesak adierazteko zein besteenak ezagutzeko.
- Kulturako tradizioaren testuei dagokienez, arreta eta interesa izatea.
- Nork bere eta besteen ekoizpen plastikoak atsegin izatea.
- Jolas-dinamikak berak sortzen dituen antzezpenetan parte hartzeko ekimena, ziurtasuna eta konfiantza izatea.

KONTZEPTUAK:

- Sei zenbakia: kardinala, deskonposizioa eta batuketa.
- Ahozko mintzaira, komunikatzeko tresnatzat hartua.
- Kulturako tradizioaren ahozko testuak.
- Kontrola: jarduera, mugimendua, arnasketa, atsedena.

PROZEDURAZKOAK:

- Ipuinen eta esperientzien gaineko deskribapenak eta kontaktak ulertzea, hizkuntzaz kanpoko seinaleak adituz.
- Ipuinen eta esperientzien gaineko deskribapenak eta kontaktak egitea, hizkuntzaz kanpoko seinaleak erabiliz.
- Kulturako tradizioako abesti batzuk ezagutzea, ulertzea, eta intonazio eta doinu egokiz kantatzea.
- Sei zenbakia: kardinala bereiztea. Sei zenbakia deskonpoatzea eta batuketarekin esperimentatzea.
- Sei zenbakia: ordinala bereiztea.

- Hizkuntza idatzi ez-konbentzionala hainbat asmorekin erabiltzea: Plastikazko lanez baliatzea gertakariak, bizipenak, fantasiak eta desioak adierazteko.
- Mugimenduaren aukerak erabiltzea besteekin elkarri eragiteko bide gisa.
- Egoerak identifikatzerakoan eta imitatzeke jokoetan parte hartzea.

EKINTZAK

HIGIMENA ETA HIZKUNTZA

Eduki guztietan, lehendabizi, gorputzarekin bizipenak izaten edo gogoratzen hasiko gara.

- Dado handi batekin honela jolastu: Haur batek botako du, eta besteek dadoaren puntuak adina urrats egingo dituzte.
- “Azeri harrapatzailean” jolastu: (seikoteak eginez) Lau haur besteen bila joango dira. Harrapatuak harrapatzera joango dira, baina laukoteak eginez.
- Bat “Azeria” izango da, eta haurrak harrapatu egin behar ditu. Lau harrapatzen dituenean, “azeria” izateari utziko dio. Hurrengo azeria laugarren harrapatua izango da.

HIZKUNTZA

- Kapitulua ulertzea: umeei kontrazi, irakasleak lagunduta.
 - Egoeraren transposizioa: imitazioa egin. Lehenago, pertsonaiak banatu: zer behar den, non kokatuko diren:
- AZERIA.- Zer demontre daukate? Hori bai gauza bitxia! Nondik atera ote dute?
- BELTXIKI.- Nik botako dut orain!
- BELTXIKI.- Sei!
- AZERIA.- Nik ere horrekin jolastu nahi nuke, baina ez lidakete utziko!
- TXIKI.- Nik botako dut orain!
- TXIKI.- (Bota egiten du.) Bat!
- AZERIA.- Korrika joaten banaiz, kendu egingo diet!
- BELTXIKI.- Bai ondo pasatu dudala! Bihar ere, horrela jolastuko gara. A! Zein dibertigarria!
- TXIKI.- Bai, nik berriro ekarriko dut.
- INURRIA.- Zer ekarriko duzu?
- TXIKI.- Hau, gauza hau.
- INURRIA.- (Haserre.) Nola ekarriko duzu zuk nirea baldin bada? Nik aurkitu dut; beraz, nirea da! Eman!
- TXIKI.- Baina zuk ez zenekien zertarako balio zuen. Ni izan naiz gora bota duena eta jolasa asmatu duena!
- INURRIA.- Eta zer? Nik aurkitu dut!
- BELTXIKI.- Txiki, egia da! Ez da zurea, emaiozu!
- TXIKI.- Ezta horrena ere! Horrek aurkitu egin du, ez zuen berea!
- AZERIA.- Egia! Nirea da! (Barrezka.)
- KATTALIN.- Tira, baina honek aurkitu du! Berea balu bezala da! Txiki, emaiozu Inurriari!
- TXIKI.- Balu bezala, balu bezala, baina ez du berea! Zuk esan duzu!
- INURRIA.- Nik aurkitu dut, eman!
- TXIKI.- Zuk aurkitu egin duzu; beraz, ez zen zurea! Ulertu duzu?
- BELTXIKI.- Txiki, ez izan horrelakoa. Gauza hori oso polita da, baina ezin diozu kendu. Egia da horrena ez dela, baina ez dakigu norena den. Beraz, emaiozu! Jabea agertu arte horrena da eta.
- TXIKI.- Jabea?

KATTALIN.- Hemen utziko dugu, eta, inor honen bila badator, eraman egingo du; bestela, gurea izango da.

AZERIA.- Azkenean! Hemen dago; azkenean, topatu dut! (Hartu, eta abiatu egiten da.)

KATTALIN.- Azeriarena zen!

TXIKI.- O! Agur gure bitxia!

BELTXIKI.- Nik uste dut harena ez dela, baina, aurkitu egin duenez gero, hartu egin du!

INURRIA.- Eta nola kenduko diogu?

TXIKI.- Ezin diogu kendu, gu baino handiagoa da eta!

KATTALIN.- Eskatu egin diogu!

BELTXIKI.- Ez digu emango.

KATTALIN.- Saiatu egingo gara. Goazen!

INURRIA.- Jan egingo gaitu!

BELTXIKI.- (Inurriari.) Zu lasai. Zu ez zaitu jango, Inurria zara eta.

TXIKI.- Ideia bat dut: Inurria joan dadila, Azeriak ez du eta jango!

INURRIA.- Azeri jauna, ...

INURRIA.- Azeri jauna, hemen nago, behean.

AZERIA.- Zer nahi duzu, Inurria?

INURRIA.- Gauza hori nirea da, eta zuk hartu duzu. Eman, mesedez!

AZERIA.- Ez, polita, nirea da! Alde hemendik, edo zapaldu egingo zaitut!

INURRIA.- Zurea baldin bada, jakingo duzu zer izen duen!

AZERIA.- (Aho zabalik geratzen da Azeria.) Mmmm... honen izena:... gauza... gauza bat da... Hori da honen izena. Ken zaitetz hortik, bestela zapaldu egingo zaitut eta! (Besteak, beldurtuta, begiratzen ere ez dira ausartzen.)

TXIKI.- Jan egingo du!

BELTXIKI.- Lasai! Azeriek ez dute inurrik jaten.

INURRIA.- Ez dakizu zer den, ez da zurea, gezurtia!

AZERIA.- Eta zer? Ez dizut emango. Ken zaitetz hortik!

INURRIA.- Ez dizu lotsarik ematen? Nirekin ausartzen zara txikia naizelako!

AZERIA.- (Isekaz.) Nirekin ausartzen zara txikia naizelako! (Jenio biziz.) Ken zaitetz hortik, edo zapaldu egingo zaitut!

TXIKI.- Zapaldu egingo du! Aiiii!

INURRIA.- Zu oso handia zara, baina ez dakizu ezer. Ezetz jakin zenbat puntu dauden gauza horren alde bakoitzean, e?

AZERIA.- Jakingo ez dut, bada!

INURRIA.- Ea, bada; zenbat daude hemen?

·”Hiru eta hiru ...” kanta abestu.

MATEMATIKA ETA HIZKUNTZA

- Bi dado egin, baina alde bakoitzeko gehienezko puntuak hiru izanik. Haurrak binaka honela jolastuko dira: lortzen dituzten puntuak adina pieza hartuz.
- Kartetan jolastu: batetik seirako kartak hartu, eta “karta-gerran” jolastu.
- Kodifikatzea: eskatu ezen marrazkien bidez konta dezatela Txikiren lagunei gertatutakoa.
- Haur bati sei bola txiki eman, eta eskatu bi eskuetan ezkutatzeko. Beste hurrek asmatu behar dute esku batean zenbat dituen, beste eskukoak ikustean. Gauza bera egin daiteke sei bolatxoak sei edalontzitan banatuz. Hurrek asmatu behar dute zenbat bola dauden besteetan, edalontzi batekoa, bitakoa edo hirutakoa ikustean.
- “Lauko lerroan” jolastu.
- Ahate-jokoaren antzeko jokoetan jolastu, baina dadoaren gehienezko puntuak sei izanik.

· **Kontakizunaren haria, blokeka eta denborak zehaztuz**

14. KAPITULUA: DADOA.

HONTZA.- Primeran nago! Zein ondo egin dudan lo!

Fiuuuu!

IZARRA.- Gabon denoi! Hemen gaude!

ILARGIA.- Gabon, Zuhaitz! Gabon, Hontza!

ZUHAITZA.- Zuek ere zarataka? Hau eguna!

IZARRA.- (Hontzari.) Ipuina entzutera etorri gara. Ni prest nago!

ILARGIA.- Ni ere bai!

HONTZA.- Ba, gaur ezin dizuet kontatu. Egun osoan lo seko egon naiz.

ZUHAITZA.- Egia da, ez dakizue nola egiten duen zurrunga.

IZARRA.- (Zuhaitzari.) Eta zuk konta ahal zeniezaguke? **00:26**

ZUHAITZA.- Ez, ezta pentsatu ere! Orain nik lo egin behar dut, eta... zaratarik ez egin, bestela...

HONTZA.- Gaur, Eguzkiak ikusi du Txikik eta adiskideek zer egin duten.

IZARRA.- (Ilargiari.) Joango gara Eguzkiarengana?

ILARGIA.- Bai!

HONTZA.- (Haurrei.) Zuhaitza erabat lo dago. Nire adiskideak joan egin dira, eta nik jolasteko gogoia dut. Zer egin dezaket?

HONTZA.- Zuhaitzaren adarretan jauzi egingo dut, adar batetik bestera.

HONTZA.- Jauzi ezberdinak egingo ditut; lehenengo, txikiak: do, re, mi fa, sol, la, si, do.

HONTZA.- Orain, handiagoak (nota hauek egingo ditu):

Do, mi, sol, do.

HODEIA.- Gaur gauean ez dut inor aurkitzen. Ilargia ez dago; Izarrik ere ez. Ni bakarrik. Gainera, ez da lurra ikusten. Ikusiko banu, Hontzarengana joango nintzateke.

HODEIA.-Hontza ez dut ikusten, baina entzuten dut. Behera jaitsiko naiz! (Beheraino jaisten hasten da; baina, bat-batean, gelditu egiten da.)

HODEIA.- Ez dut ezer ikusten. Adi egongo naiz, eta bere soinuaren laguntzaz Zuhaitzeraino helduko naiz.

HONTZA.- Nor da?

HODEIA.- Ni naiz. Hodeia.

HONTZA.- Gabon, Hodeia!

HODEIA.- Gabon Hontza! Bakarrik nago zurekin gera naiteke?

HONTZA.-Ondo da, baina ipuin bat kontatu behar didazu.

KARATULA.- Bazen behin untxi txiki bat. Amatzorekin eta aitatxorekin bizi zen. Haren etxea lur azpian zegoen, eta, han, haien ohe lastozkoak.

(Eguzkia zeruan sortu berria da; elurra desagertzen hasi da. Inurriak inurritegitik irten, eta paseatzera doaz. Beltxiki esnatu egiten da, eta, ibiltzen ari dela, hitz egiten du.)

(Beltxikik nagia atera, txiriboltak egiten hasi, eta ura edatera doa korrika.)

BELTXIKI.- Egun on, Eguzki jauna!

EGUZKIA.- Egun on, Beltxiki! Non dira zure adiskideak?

BELTXIKI.- Oraindik ez dira etorri, baina berehala etorriko dira jolastera. (Penaz.) Baina elurra urtzen ari zara.

EGUZKIA.- Bai, Beltxiki, laster udaberria izango da. Belar berria sortuko da, eta loreak ere bai. Belar freskoa jango duzue, eta marrubiak. Ez zaizkizu gustatzen?

BELTXIKI.- Bai, jakina, marrubiak asko gustatzen zaizkit.

Perretxikoak ere asko gustatzen zaizkit.

EGUZKIA.- Bada, hori guztia udaberriarekin sortuko da.

00:30

BELTXIKI.- Eta hirustak! Zenbat denbora hirusta gozoak jan gabe! Beharbada, atera dira honezkero!

EGUZKIA.- Agian. Begira, Beltxiki, han datoz zure adiskideak, Txiki eta Kattalin.

BELTXIKI.- Banoa haien bila. Agur, Eguzki jauna!

(Txiki eta Kattalin mendian zehar dabilta; Inurria, beste aldetik.)

KATTALIN.- Beltxiki goiz jaiki da. Ez zegoen etxean. Nire ustez, ur freskoa edatera joan da. Errekaren ondoan aurkituko dugu.

TXIKI.- Begira, Kattalin, Zuhaitz hauei laster hostoak sortuko zaizkie, kimuak dituzte eta.

KATTALIN.- Bai, laster udaberria izango da. Egunak luzeagoak izango dira, eta mendian denbora gehiagoz ibiltzen ahalko gara jolasean.

BELTXIKI.- (Offean.) Kattalin, Txiki!

KATTALIN.- Beltxiki, egun on!

TXIKI.- Nondik zatoz?

BELTXIKI.- Errekatik; ura fresko-fresko dago. Etorri nahi duzue?

KATTALIN.- Bai, goazen!

(Hirurek ur freskoa edaten duten bitartean, haien zurrutadak entzuten dira.)

BELTXIKI.- Eta, orain, hirustak biltzera joango gara.

KATTALIN.- Nik nahiago ditut perretxikoak.

TXIKI.- Bakoitzak nahi duena bilduko du.

(Hirurek bilatzeari ekiten diote, abesten duten bitartean.)

(Txikik eta Kattalineak, bildu ahala, jan egiten dute.)

(Inurriak dado bat aurkitzen du; inguruan birak eman, usaindu eta bultzatu egiten du; ez du indar nahikorik dadoa mugitzeko.)

(Gero, errekatik hurbil esertzen dira, ura edateko eta jateko.)

KATTALIN.- (Perretxikoak zenbatzen, hiru bikote.) Bi, gehi bi, gehi beste bi, sei!

TXIKI.- Begira, Beltxiki, hirusta honek lau hosto ditu.

BELTXIKI.- Hauek, berriz, ez; hiru dituzte. Hiru eta hiru sei!

KATTALIN.- Zer ote da hori?

TXIKI.- Goazen ikustera!

INURRI.- (Gelditu, begiratu, eta gelditu egiten da berriro.)

Begiratu beharrean, zergatik ez didazue laguntzen?

BELTXIKI.- Egia da, lagundu egingo diogu.

TXIKI.- Eta zer da hori?

KATTALIN.- Auskalo! Nik ez dut inoiz horrelakorik ikusi.

BELTXIKI.- Inurri, zer da hori?

INURRI.- Ez dakit. Ez dut ideiarik ere, baina oso polita iruditu zait.

TXIKI.- Utzi begiratzen, ea!

BELTXIKI.- Alde bakoitzean puntuak ditu, baina beti kopuru ezberdina! (Harriduraz.)

KATTALIN.- (Kamerak erakusten du.) Hemen bat, eta hor hiru.

TXIKI.- Hemen bi, eta hor lau.

BELTXIKI.- Hemen bost, eta hor azpian zenbat?

KATTALIN.- Ez altxatu! Asmatu egingo dugu!

KATTALIN.- Alde batean bat, gero bi, gero hiru. Beti bat gehiago! Beraz...!

HIRUROK.- Bat, bi, hiru, lau, bost, eta beste bat gehiago, sei!

BELTXIKI.- Zertarako balio ote du?

KATTALIN.- Ez dut uste baloiztat erabiltzeko denik!

TXIKI.- Aupaaa!

BELTXIKI, KATTALIN ETA INURRI.- Kontuz!

KATTALIN.- Ideia bat dut!

INURRIA.- Gauza hau gora botako dugu, eta, erortzen denean, ateratzen den kopurua adina jauzi egingo ditugu.

KATTALIN.- Lau!

00:35

AZERIA.- Zer demontre daukate? Hori bai gauza bitxia! Nondik atera ote dute?

BELTXIKI.- Nik botako dut orain!

BELTXIKI.- Sei!

AZERIA.- Nik ere horrekin jolastu nahi nuke, baina ez lidakete utziko!

TXIKI.- Nik botako dut orain!

TXIKI.- (Bota egiten du.) Bat!

AZERIA.- Korrika joaten banaiz, kendu egingo diet!

BELTXIKI.- Bai ondo pasatu dudala! Bihar ere horrela jolastuko gara. A! Zein dibertigarria!

TXIKI.- Bai, nik berriro ekarriko dut.

INURRIA.- Zer ekarriko duzu?

TXIKI.- Hau, gauza hau.

INURRIA.- (Haserre.) Nola ekarriko duzu zuk nirea baldin bada? Nik aurkitu dut; beraz, nirea da! Eman!

TXIKI.- Baina zuk ez zenekien zertarako balio zuen. Ni izan naiz gora bota duena eta jolasa asmatu duena!

INURRIA.- Eta zer? Nik aurkitu dut!

BELTXIKI.- Txiki, egia da! Ez da zurea, emaiozu!

TXIKI.- Ezta horrena ere! Horrek aurkitu egin du, ez zuen berea!

KATTALIN.- Tira, baina honek aurkitu du! Berea balu bezala da! Txiki, emaiozu Inurriari!

TXIKI.- Balu bezala, balu bezala, baina ez du berea! Zuk esan duzu!

INURRIA.- Nik aurkitu dut, eman!

TXIKI.- Zuk aurkitu egin duzu; beraz, ez zen zurea! Ulertu duzu?

BELTXIKI.- Txiki, ez izan horrelakoa. Gauza hori oso polita da, baina ezin diozu kendu. Egia da horrena ez dela, baina ez dakigu norena den. Beraz, emaiozu! Jabea agertu arte horrena da eta.

TXIKI.- Jabea?

KATTALIN.- Hemen utziko dugu, eta, inor honen bila badator, eraman egingo du; bestela, gurea izango da.

AZERIA.- Azkenean! Hemen dago; azkenean, topatu dut! (Hartu, eta abiatu egiten da.)

KATTALIN.- Azeriarena zen!

TXIKI.- Agur gure bitxia!

BELTXIKI.- Nik uste dut harena ez dela, baina, aurkitu egin duenez gero, hartu egin du!

INURRIA.- Eta nola kenduko diogu?

TXIKI.- Ezin diogu kendu, gu baino handiagoa da eta!

KATTALIN.- Eskatu egin diogu!

BELTXIKI.- Ez digu emango.

KATTALIN.- Saiatu egingo gara. Goazen!

INURRIA.- Jan egingo gaitu!

BELTXIKI.- (Inurriari.) Zu lasai. Zu ez zaitu jango, Inurria zara eta.

TXIKI.- Ideia bat dut: Inurria joan dadila, Azeriak ez du eta jango!

INURRIA.- Azeri jauna, ...

INURRIA.- Azeri jauna, hemen nago, behean.

AZERIA.- Zer nahi duzu, Inurria?

INURRIA.- Gauza hori nirea da, eta zuk hartu duzu. Eman, mesedez!

AZERIA.- Ez, polita, nirea da! Alde hemendik, edo zapaldu egingo zaitut!

INURRIA.- Zurea baldin bada, jakingo duzu zer izen duen!

AZERIA.- (Aho zabalik geratzen da Azeria.) Mmmm... honen izena:... gauza... gauza bat da... Hori da honen izena. Ken zaitetz hortik, bestela zapaldu egingo zaitut eta!
(Besteak, beldurtuta, begiratzen ere ez dira ausartzen.)

TXIKI.- Jan egingo du!

BELTXIKI.- Lasai! Azeriek ez dute inurririk jaten.

INURRIA.- Ez dakizu zer den, ez da zurea, gezurtia!

00:39

AZERIA.- Eta zer? Ez dizut emango. Ken zaitetz hortik!

INURRIA.- Ez dizu lotsarik ematen? Nirekin ausartzen zara txikia naizelako!

AZERIA.- (Isekaz.) Nirekin ausartzen zara txikia naizelako!

(Jenio biziz.) Ken zaitetz hortik, edo zapaldu egingo zaitut!

TXIKI.- Zapaldu egingo du! Aiiii!

INURRIA.- Zu oso handia zara, baina ez dakizu ezer. Ezetz jakin zenbat puntu dauden gauza horren alde bakoitzean?

AZERIA.- Jakingo ez dut, bada!

INURRIA.- Ea, bada; zenbat daude hemen?

AZERIA.- Mmmmm... bada.... asko!

INURRIA.- (Barrez.) Asko, asko, baina zenbat?

AZERIA.- Mmmmm... ba.da... asko! Utzi bakean!

INURRIA.- Ez, ez, esan zenbat!

AZERIA.- (Haserre.) Ez dakit! Nik ez dakit zenbatzen!

Utzi bakean, Inurri nazkagarria!

INURRIA.- Joango naiz, bai, baina hau eraman egingo dut!

TXIKI.- Azeria tontoa da! Ez daki zenbatzen!

BELTXIKI.- Inurria oso ausarta izan da. Zapaldu ez duenean!

AZERIA.- Non zaude, Inurria? Harrapatuko zaitut, bai horixe, harrapatuko zaitudanez!

INURRIA.- (Lur azpitik, haurrei.) Txxxx! Ez nau ikusi lur azpian ezkutatu naizelako.

Bestela, zast!, zapaldu egingo nindukeen. Agur, neska-mutilok! Ondo ibili!

BIBLIOGRAFIA

- RESURRECCION MARIA DE AZKUE: Euskalerraren Yakintza. Literatura Popular del País Vasco. EUSKALTZAINDIA & ESPASA CALPE
- VILA, I.: "Adquisición y desarrollo del lenguaje" Narcea argitaletxea.
- HEMSY DE GAINZA, V.: "La iniciación musical del niño" Ricordi Americana argitaletxea.
- BEAVERD, B.: "Antes del cálculo" Kapelusz argitaletxea.
- LAPIERRE, A. Y AUCOUTURIER, B.: "Asociaciones de contrastes estructuras y ritmos"

EGILEAK:

PRODUKTOREA

Luisa Calvo

GIDOIA

Luisa Calvo

GIDOI TEKNIKOA

David Brea

SOINU-BANDA

Koldo Uriarte

ARTEZKO ZUZENDARIA

Ana Lidia Compañón

ARGAZKI-ZUZENDARIA

Ana Lidia Compañón

ZUZENDARIA

David Brea

EXEKUZIOKO LANGINTZA

Goiaz Digital Produkzioak

Eloy Val

EUSKARAKO

ARDURADUNA

Joan Ignazio Bereziartua

JARRAIPENA

Maitane Cancho

Feli Rodríguez

TXOTXONGILOEN

EGILEAK

Jabier Mayor

Jabier Atxa

EDIZIOA

David Brea

Maitane Cancho

Feli Rodríguez

INFOGRAFIA ETA TRATAMENDU DIGITALA

Maitane Cancho

Feli Rodríguez

SOINUA

Goiaz Digital Produkzioak

Maitane Cancho

Feli Rodríguez

SOINU-EDIZIOA

David Brea

Maitane Cancho

Feli Rodríguez

KAMERALARIAK

David Brea

Feli Rodríguez

TXOTXONGILOEN

BIZI-EMAILEAK

Zigor Bilbao

Aitor Ormaechea

Ozkar Galán

AHOTSAK

Iker Galarza

Ane Garmendia

Aintzane Irazusta

Rakel Marin

Laura Murcia

Xabier Riezu

Asier Sota

EUSKO JAURLARITZAREN HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILAREN LAGUNTZAZ EGINA.

LEGE GORDAILUA: VI-119/ 99

EIMA 98

L.C. PRODUKTOREA